

MERKEALDIKO SALMENTA

1- MERKEALDIEN KONTZEPTUA

Merkealdiko salmenta izena bakarrik erabil daiteke salmentetan ohizko prezioen beherakadan, urtaro-aldaketan, denboraldi-amaieran edo salgaiak berritzekotan.

Merkealdiko salmenta izenaren erabilera debekatuta dago ondorengo gaiak saltzeko: hondatuta daudenak, merkealdiko salmentarako eskuratutakoak eta merkealdiko salmentak hasi baino hilabete lehenago kontsumitzailearentzako salgai ez zeudenak.

Merkealdiko salmentak bakarrik iragarri ahal dira salmentan dauden produktuen gutxienez ehuneko 50-retan ukitua dagoenean. Ehuneko honetara heldu ez denean, benetan ukitua dauden artikuluak edo sektoreak bakarrik iragarri behar dira. Eta kasu honetan, salgai dauden produktu guztiak merkealdikoak ez badira, beherapena dutenek egoki berezita egon beharko dute besteetatik.

2- BETEBEHAR GARRANTZITSUENAK

EPEARI DAGOKIONEZ:

- ❖ Euskal Autonomia Erkidegoko merkealdiak bi hauek izango dira:
 - Negu parteko merkealdia (neguko merkealdia, alegia) urtarrilaren 7tik martxoaren 31ra bitartekoa –biak barne- izango da.
 - Uda parteko merkealdia (udako merkealdia, alegia) uztailearen 1etik irailaren 30era bitartekoa –biak barne- izango da.
- ❖ Merkealdien iraupena gutxienez astebetekoa eta bi hilabetekoa gehienez izango da.

ETIKETARI DAGOKIONEZ:

- ❖ Gaiak modu zuzen batean etiketatu beharko dira eta haien osagaiak xehetasunez adierazi beharko dira.
- ❖ Saltzekoak diren artikuluak prezio beherapenarekin agertzen badira, argitasunez agertu behar dira, artikulua bakoitzean, lehenengo prezioa eta orain eskatzen dena, alegia murriztutako prezioa. Hala ere, artikulua multzo baten portzentajezko murrizpena baldin bada, iragarpen generikoarekin aski izango da eta ez da beharrezkoa artikulua bakoitzean horrela agertzea.
- ❖ Erakuslehoan erakusten diren artikuluen prezioa kanpotik ikusgarri izan behar dira.
- ❖ Betebehar honetatik kanpo gelditzen dira: bitxigintza, larrugintza eta 601 euroko balioa baino handiagoa duten produktuak.

JAKINARAZPEN ETA DIFUSIOARI DAGOKIONEZ:

- ❖ Salmenta-modu hau egiteko Eusko Jaurlaritzaren Merkataritza Sailari hasi baino lehen jakinaraziko zaio.
- ❖ Merkealdien komunikazioa establezimenduan jarri beharko da, begi-bistakoa den leku batean.
- ❖

SALMENTEN KUDEAKETA / BESTE BETEBEHARREI DAGOKIENEZ:

- ❖ Establezimenduak produktu txarren itzultzeaz arduratuko da.
- ❖ Dendetan eskaintako ordainbideak, txartelak edo urte osoan dauden itzultze-politikak merkealdietan indarrean jarraituko dute kontrakoa ikusgai adierazi ezean.

3 – JAKINARAZPENEN AURKEZPENA

- ❖ ON-LINE: Merkealdiko salmenten jakinarazpena online egiten bada [Eusko Jaurlaritzaren Web orria](#) erabiliko da eta horretarako ezinbestekoa da posta elektronikoa kontua edukitzea.
- ❖ PAPEREAN: Merkealdiko salmenten jakinarazpenak Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun sailaren lurralde bulegoan jaso eta bidal daitezke.

4 – ARAUTEGI ERREGULATZAILEA

- Estatuaren Dekretua: [Dekretua 20/2012 uztailaren 14koa](#) lehiakortasunaren sustapenerako eta aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko neurriak
- Dekretu autonomikoa: [137/ 1997 Dekretua, ekainaren 10ekoa](#), Euskal Autonomia Erkidegoko urteko merkealdi biak finkatzen dituena.
- Estatuaren legea: [7/1996 Legea, 1996ko urtarrilaren 15ekoa](#), Xehekako Merkataritzaren Antolamenduarena (18, 19, 20, 21, 24, 25 eta 26 artikulua)
- Lege autonomikoa: [7/1994 Legea, maiatzaren 27koa](#), Merkataritza Jarduerari buruzkoa(24 artikulua)
- Dekretu autonomikoa: [130/86 Dekretua, ekainaren 3koa](#), beherapendun salmentei buruzkoa